



← EUROPAN BIODIBERTSITATEA BABESTU  
ETA BALIOESTEKO ESKUALDEKO  
TRUKEAK ETA POLITIKAK



**Reverse**  
BIODIBERTSITATEA BABESTEKO  
EUROPAKO EGITASMOA



## ZER DA BIODIBERTSITATEA?

Biodibertsitateak Lurrean dauden izaki bizien aniztasuna esan nahi du. Organismo bizi guztiak sartzen dira: landareak eta animaliak, mikroorganismoak, bak-

teriak eta geneak, eta modu konplexuan elkarreragiten dute inguruarekin, ekosistema biziak eratzen: Biodibertsitatea, oihanetan eta natura-

erreserbetan ez ezik, hirietan, landatutako lurretan eta landaguneetan ere badago.



### LANDATUTAKO BIODIBERTSITATEA

Laborantzian dugun ondarean ere badago biodibertsitatea: barazkiak, zerealak, frutak eta landare apaingarriak. Tradizio hori, nekazariak eta lorazainak belaunaldiz belaunaldi mantendu dute, eta arriskuan daude duela zenbait urtetik hona.

Izatez, nekazaritzan jarduteko era intentsiboak eta marketin-metodoekin, Europan landutako barietateak hazi-ekoizleek patentatutako barietate gutxi batzuetara murriztera jo da. Biodibertsitatea errespetatzen duen laborantzak, espezieek beren berariazko ezaugarriak berreskuratzea lortzen da; ezaugarri horiek lurrari eta nutrizioaren alorreko kalitateari lotuta daude, eta jendartean duten balioari ere bai. Sorrerako testua Elikadurarako eta Nekazaritzarako Baliabide Filogenetikoaren gaineko Nazioarteko Tratatuak. 2004an sartu zen indarrean ([www.planttreaty.org](http://www.planttreaty.org))

## ZERGATIK ZAINDU BIODIBERTSITATEA?

**Biodibertsitatearen galera** gero eta bizkorragoa da; gertakari hori frogatuta dago. Zientzialarien komunitatearen irudiko, egun ezagutzen ditugun espezie bizien erdia mende bateko epean desagertu daiteke. Izatez, pertsonon ekintzen ondorioz, espezieen desagertpenaren egungo tasa tasa naturala baino 100-1.000 bider handiagoa da.

Biodibertsitate-galeraren bost arrazoi nagusi identifikatu dira:

- Espezieei loturiko natura-inguruneak zatikatu eta suntsitzea: bereziki, urbanizazioa handitzea eta landatzeko lurrrak hedatzea;
- Natura gehiegi ustiatzea (arrain gehiegi harrapatzea, basoak soiltzea, ezkutuko ehiza eta arrantza, etab.);
- Kanpoko espezie inbaditzaileak sartzea (koipua, liztor asiarra, *Ludwigia* uretako landarea, etab.);
- Kutsadura (jatorria industrian eta nekazaritzan duena, etab.);
- Klima-aldaketa (biodibertsitatearen gainean zuzeneko edo zeharkako eragina daukana)



Hala ere, biodibertsitateak elikagaiak, osasuna eta lehengaiak ematen dizkigu. Biodibertsitatearen galerak, hortaz, **funtsezko ondorio sozio-ekonomikoak** ditu. Guk bizirauteko ordezkariak eta ezinbestekoak diren ondasunak emateaz gain, oxigenoa kasu, biodibertsitatea zerbitzuen jatorrian dago, eta hori guztia baino zabalagoak dira. Horrela, hainbat espezieek -intsektuak, saguzarrak edo hegaztiak- landareak polinizatzea bermatzen dute, eta polinizatorik gabe ez dago frutarik eta barazkirik. Gainera, natura-inguruneek ura modu naturalean iragazten laguntzen dute, uholdeei aurrea hartzen, paisaiak egituratzen eta gure ingurunea oro har hobetzen.

BIODIBERTSITATEA BIZITZA DA: ZAINDU DEZAGUN

# 3 DATA NAGUSI BIODIBERTSITATEAN:

## 1992

### LURRAREN GOI-BILERA

CHUMAD Ingurumenaren eta Garapenaren gaineko Nazio Batuen 1. Biltzarran, Lurraren goi-bilera, Brasilgo Rio de Janeiron egin zen. 190 estatuburuk eta gobernuburuk onartu zuten Rioko Adierazpena. BAH Biologia Aniztasunaren Hitzarmena onartu zuten, eta aniztasuna "pertsona ororen kezka" gisa onartzeko konpromisoa hartu zuten.

## 1998

### BIODIBERTSITATEA ZAINTEKO EUROPAKO ESTRATEGIA

Estrategia horrekin, biologia-aniztasunaren gaineko Rio de Janeiroko Biltzarreko konpromisoak betetzeko erkidegoko politika eta tresna bakanak garatzeko esparru orokor bat ezartzen da. Lau gai nagusitan oinarritzen da, eta horietan ezartzen eta abiarazten dira berariazko helburuak: bereziki, bi-zi-iturrien babesa, nekazaritza, arrantza, garapenerako laguntza eta ekonomia-lankidetzaren arloetako ekintza-planen bitartez. Beste ekintza-plan batzuk nazio mailan garatu ziren orduan

## 2010

### BIODIBERTSITATEAREN NAZIOARTEKO URTEA

Nazio Batuen Erakundeak 'Biodibertsitatearen Nazioarteko Urte' izendatu zuen 2010a, jendeari munduko biodibertsitatearen egoeraz ohartarazteko eta biodibertsitatea murrizteak dituen ondorioak jakinarazteko. BAH Biologia Aniztasunaren Hitzarmenaren Idazkaritzak ondoko helburu nagusi hauek ezarri zituen 2010erako:

- Biodibertsitatea zaintzearen garrantziaren gainean eta biodibertsitateari eragiten dioten arriskuen gainean herritarrek duten kontzientzia sendotzea;
- Herritarren sentsibilizazioa handitzea, erkidegoek eta gobernuek biodibertsitatea zaintzeko arrakastaz gauzatu dituzten ekintzen inguruan;
- Biodibertsitatearen galera geldiarazteko behar diren berehalako neurriak hartzera bultzatzea pertsonak, erakundeak eta gobernuek;
- Biodibertsitatearen arriskuak murrizteko konponbide berritzaileak sustatzea;
- 2010az ondoko aldirako hartu beharreko neurrien gainean interesa duten aldean arteko elkarrizketa bat hastea.



# REVERSE EGITASMOA

EUROPAN BIODIBERTSITATEA BABESTEKO ETA BALIOA EMATEKO ESKUALDE ARTEKO EKINTZA PLANA EDITATZEA

EUROPAKO REVERSE EGITASMOAREN HELBURUA EUROPA MAILAN BIODIBERTSITATEA SUSTATU ETA ESKUALDEETAN EKINTZA POSITIBOEI LAGUNTZEA DA.



Europako eskualdeetako esperientzia eta ekimenen trukeen oinarriaren gainean eraikita, egitasmo horren helburua, biodiber-

tsitatea zaindu eta garatzearen gaineko eskualdeko politiken eraginkortasuna hobetzea da

## FUNTSEZKO 3 GAI

- 1 NEKAZARITZA, ELIKAGAIEN EKOIZPENA ETA BIODIBERTSITATEA
- 2 TURISMOA ETA BIODIBERTSITATEA
- 3 LURRALDE-ANTOLAMENDUA ETA BIODIBERTSITATEA

Hiru gaietan Europako beste eskualde batzuetara erraztasunez eraman daitezkeen ekintzak identifikatzea da helburua

## EGITASMOAREN AMAIERAN

Hainbat agiri sortuko dira, tokiko kontseiluek eta erabakiak hartzeko ardura dutenek beren politiketan biodibertsitatea kontuan izateko behar diren tresnak eskaintzeko

- Erabakiak hartzera zuzenduriko **gomendio estrategikoak eta politikoak**, dituzten tokiko politiketarako ikuspegi berriak irekitzeko.
- **Jardunbide egokien gida**, egiazko tresna operatibo gisa; gida horretan bilduko dira, gaika eta modu praktikoan, biodibertsitatea zaintzeko eraginkorrak direla erakutsi duten esperientzia emankorrak. Aurkeztutako jarduera egokiak erraz kopiatzekoak izango dira.
- Europa mailako **gutun bat** proposatuko da, eragileak biodibertsitatea zaintzeko egitasmo bateratu batean biltzeko.

## EGITASMOA ZENBAKITAN

- **EGITASMO-MOTA:**  
ESKUALDE ARTEKO LANKIDETZARAKO EUROPAKO EGITASMOA – INTERREG IVC PROGRAMA.
- **PARTE-HARTZAILE KOPURUA:**  
14 PARTE-HARTZAILE DAUDE BIODIBERTSITATEAREN GARAPENEAN.
- **EGITASMOKO HERRIALDE KOPURUA:**  
EUROPAKO 7 HERRIALDE.
- **EGITASMOAREN IRAUPENA:**  
3 URTE (2010EKO ABENDUTIK - 2012KO URTARRILERA).
- **EGITASMOAREN BEHIN-BEHINEKO AURREKONTUA:**  
2,5 MILIOI EURO.



INTERREG IVC Programa, Lurralde Lankidetzarako Europako Helburuaren zati bat da. EBren programa bat da, eta ezagutzak eta esperientziak trukatzeko elkarrekin lana egiten laguntzen die Europako eskualdeei. 2007an sortu zen, eta programa 2013ra arte gauzatu da

## FUNTSEZKO UNEAK



### NOLA IZAN REVERSE EGITASMOAREN GAINEKO EGUNAREN BERRI?

Parte-hartzaileek eskainitako ekitaldien agenda, eskualde arteko mintegietan ateratako ondorioak, ekintza baten inguruko informazioa, etab.:

Ezagutu Reverse egitasmoaren gaineko azken berriak eta ekitaldiak, web orrian:  
[www.reverse.aquitaine.eu](http://www.reverse.aquitaine.eu)

- **2010EKO EKAINA:**  
EGITASMOA ABIARAZTEKO BILTZARRA, BORDELEN (FRANTZIA).
- **2010EKO EKAINA:**  
ESKUALDE ARTEKO 1. MINTEGIA: «NEKAZARITZA, ELIKAGAIEN EKOIZPENA ETA BIODIBERTSITATEA», BORDELE (FRANTZIA).
- **2010EKO IRAILA:**  
REVERSEREN WEB ORRI OFIZIALAREN ORRIA SARERATZEA.
- **2010EKO IRAILA:**  
ESKUALDE ARTEKO 2. MINTEGIA: «TURISMOA ETA BIODIBERTSITATEA», KRETA (GREZIA).
- **2011KO MARTXOA:**  
ESKUALDE ARTEKO 3. MINTEGIA: «LURRALDE-PLANGINTZA ETA BIODIBERTSITATEA», MURTZIA (ESPAINIA).
- **2011REN AMAIERA:**  
ESKUALDE ARTEKO 4. MINTEGIA: JARDUNBIDE EGOKIEN GIDA LANTZEA, UNBRIA (ITALIA).
- **2012AREN HASIERA:**  
ESKUALDE ARTEKO 5. MINTEGIA: GUTUNA LANTZEA (ESTONIA).
- **2012KO AMAIERA:**  
ITXIERA BILTZARRA: EGITASMOAREN ONDORIOAK ETA EMAITZAK AURKEZTU ETA BANATZEA, BRUSELA (BELGIKA).

# REVERSE EGITASMOAN FUNTSEZKOAK DIREN ERAGILEEN AURKEZPENA

REVERSE egitasmoko eragileak eskualdeko agintaritzak eta erakunde publikoak dira. Luzaroan egon dira biodibertsitate naturala eta landua babestu eta garatzeko zereginen sartuta. Eragile horien eginkizuna hainbat arlo osagarritan oinarritzen da: espezieak in situ zaintzea, gene-bankuak, naturaguneak kudeatzea, biodibertsitatea zaintzeko eskualdeko estrategiak (ekologia-korridoreak, etab.), biodibertsitatea babesteko tokiko legeria, hezkuntza, etab.

Akitaniako eskualdea da parte-hartzaile nagusia REVERSE egitasmoan.



# ESKUALDEAK

Biodibertsitateari lotutako makina bat jardueragatik nabarmetzen dira eskualdeak: hala nola, ingurumena kudeatzea, lurralde-antolamendua, nekazaritzaren garapena eta bertako ohiko edo ezohiko espezieen babesa



**AKITANIAKO  
ESKUALDEA  
(FRANTZIA)**

[www.aquitaine.fr](http://www.aquitaine.fr)



**UNBRIAKO  
ESKUALDEA  
(ITALIA)**

[www.regione.umbria.it](http://www.regione.umbria.it)  
[www.parco3a.org](http://www.parco3a.org)



**MURTZIAKO  
ESKUALDEA  
(ESPAINIA)**

[www.murcianatural.com](http://www.murcianatural.com)



**EUSKO  
JAURLARITZA  
(ESPAINIA)**

[www.euskadi.net](http://www.euskadi.net)  
[www.ingurumena.ejgv.euskadi.net](http://www.ingurumena.ejgv.euskadi.net)



**Der Senator für Umwelt,  
Bau, Verkehr und Europa**

**BREMENGO  
ESKUALDEA  
(ALEMANIA)**

[www.umwelt.bremen.de](http://www.umwelt.bremen.de)



**DRAMA-KAVALA-  
XANTHIKO  
LURRALDE  
AGINTARITZA  
(GREZIA)**

[www.nestos.gr](http://www.nestos.gr)



**TXANIAKO ADMINISTRAZIO  
KONTSEILUKO ESQUALDEKO BASO-  
GINTZA ZUZENDARITZA (GREZIA)**

[www.crete-region.gr](http://www.crete-region.gr)

Zuzendaritza hori da eskualdeko naturaguneak kudeatzeko eta gainbegiratzeko ardura daukan agintaritza publikoa



**Arsial**

Agenzia Regionale  
per lo Sviluppo e l'Innovazione  
dell'Agricoltura del Lazio

**ARSIAL (ITALIA)**  
[www.arsial.regione.lazio.it](http://www.arsial.regione.lazio.it)

Nekazaritzaren garapenerako eta berrikuntzarako Lazioko agentzia nazionala da nekazaritzaren eskualdeko politika gauzatzeko ardura duen erakunde publikoa

## BIODIBERTSITATEA BABESTEKO BESTE FUNTSEZKO ERAGILE BATZUK



**FRANTZIA**

[www.cren-aquitaine.fr](http://www.cren-aquitaine.fr)

**NGEK**

Akitaniako Naturaguneen Eskualdeko Kontserbatorioa guber-nuz kanpoko erakunde bat da, eta bere helburua eskualdeko natu-ragune anitzak babestea da



**ESLOVAKIA**

[www.crvr.sk](http://www.crvr.sk)

**LANDARE EKOIZPENAREN GAINKO IKER-  
KETA ZENTROA - LANDARE-EKOIZPENAREN  
GAINKO PIEŠTANY IKERKETA INSTITUTUA**

Ikerkuntza-erakunde hori zuzenean Eslovakiako Nekazaritza Mi-nisterioaren menpe dago, eta bere gain dauka biodibertsitatearen eta landare-ekoizpenaren eremuko iker-kuntza eta garapena



**ESTONIA**

[www.emu.ee](http://www.emu.ee)

**BIZITZAREN ZIENTZIEN  
ESTONIAKO UNIBERTSITATEA**

Unibertsitate publiko hori era-kunde aitzindaria da nekazari-tzaren eta ingurumen-zientzien eremuko ikerkuntzan eta ira-kaskuntzan, Itsaso Baltikoan



**GREZIA**

[www.maich.gr](http://www.maich.gr)

**MAICH TXANIAKO  
NEKAZARITZAKO ERAKUNDE  
MEDITERRANEOA**

MAICH hezkuntza eta ikerkuntza erakunde bat da, eta nekazaritza mediterraneoaren gaiak aztertzen ditu.



**FRANTZIA**

[www.bio-aquitaine.com](http://www.bio-aquitaine.com)

**BIO  
D'AQUITAINE**

Bio d'Aquitaine elkarteak nekazaritza organikoaren arloko eskualde mailako ekoizleen 5 kolektibo biltzen ditu. Elkar-tearen ikerketen oinarria, bere-ziki, landutako espezieen dina-mika zaintzea da.



**ALEMANIA ALEMANIA**

[www.ttz-bremerhaven.de](http://www.ttz-bremerhaven.de)

**BREMERHAVENGO TEKNOLOGIA  
TRANFERENTZIA ZENTROA**

TTZ irabazi asmorik gabeko Iker-kuntza eta Garapen zentro bat da, eta elikagaien ekoizpenaren nahiz ingurumenaren eremue-tan dauka esperientzia



Euskal Autonomia Erkidegoak "REVERSE" egitasmoan hartzen du parte, Eusko Jaurlaritzako Ingurumen, Lurralde Plangintza, Nekazaritza eta Arrantza Saileko Biodibertsitateerako eta Ingurumen Partaidetzarako Zuzendaritzaren bitartez.

Zuzendaritza horren eskumen nagusien artean, biodibertsitatea zaindu eta babestea eta bizi-iturriak eta natura-ondarea era jasangarrian erabiltzea sustatzea daude –bai oro har eta bai Euskal Autonomia Erkidegoko Babestutako Naturaguneetan (Parke Naturalak, Babestutako Biotopoak, Natura 2000 Sarea, RAMSAR hezeguneak, Urdaibaiko Biosfera Erreserba, etab)–, eta biodibertsitatearen elementuak zaintzea ere bai (habitata, basoko flora eta fauna espezieak, etab.).

Gainera, hezkuntza, prestakuntza eta sentsibilizazio planak lantzen ditu ingurumenaren esparruan, Eskolako 21 Agendak koordinatu eta bultzatzen ditu, eta ingurumenaren arloko informazioa kudeatzen du, gai horretan parte-hartze publikoa sustatuz.

Euskal Autonomia Erkidegoko Babestutako Naturaguneen Sareak 150.000 hektarea baino gehiagoko azalera hartzen du: lurralde osoaren % 21 inguru.

Espazioen tipologiaren arabera, batzuek zati batean gainjarri egiten diren arren, figura hauetan banatzen dira:

9 parke natural, babestutako 6 biotopo, Batasunaren Intereseko 52 Leku (BIL), Hegaztientzako Babes Bereziko 6 Gune, Biosfera Erreserba 1 eta 6 RAMSAR hezegune.

Gainera, Euskal Autonomia Erkidegoan, badaude beste babes-figura batzuk ere, ingurumena oro har babesteko tresnetatik eta lurralde antolamendutik eratorriak: hala nola, Lurraldearen Antolamendurako Artezbidetean jasotako Natura aldetik interesekoak diren Aldeak edo Lurraldearen Arloko Planean katalogatutako hezeguneak.

Egun, Natura 2000 Sareko BZG Bereziki Zaintzeko Guneak izendatzeko beharrezko helburuak eta zaintza-neurriak jasoko dituzten agiriak lantzen ari dira, eta HBBGak zaintzeko agiriak lantzen ere bai ([www.euskadi.net/natura2000](http://www.euskadi.net/natura2000) <<http://www.euskadi.net/natura2000>>

Halaber, Babestutako Eremuen Sarea osatzen ari da, eta babestutako biotopo berriak izendatzea aurreikusten da.

Hezeguneen inbentarioa eta arriskuan dauden flora eta faunako espezieen katalogoa berrikusten ari dira, eta lantzen doan informazio berri guztiarekin Biodibertsitatearen Informazio Sistema elikatzen ari da. Hori da tresna nagusia, lanerako eta Euskal Autonomia Erkidegoko Natura-ondarearen eta Biodibertsitatearen gaineko informazioa jendaurrean eskuragarri jartzeko ([www.euskadi.net/biodiversidad](http://www.euskadi.net/biodiversidad) <<http://www.euskadi.net/biodiversidad>>



[www.reverse.aquitaine.eu](http://www.reverse.aquitaine.eu)



Egitasmo horren zati bat EGEF Eskualde Garapeneko Europako Funtsak finantzatzen du, eta INTERREG IVC programari esker gauzatzen da

